

I. XEDAPEN OROKORRAK

ESTATUKO BURUZAGITZA

13432 *Hutsen zuzenketa, honako honena: 25/2015 Legea, uztailaren 28koa, bigarren aukerako mekanismoarena, finantza-kargaren murrizketarena eta gizarte arloko bestelako neurriena.*

Hutsak atzeman dira uztailaren 28ko 25/2015 Legean (Bigarren aukerako mekanismoarena, finantza-kargaren murrizketarena eta gizarte arloko bestelako neurriena), zeina «Estatuko Aldizkari Ofizialaren» 2015eko uztailaren 29ko alean (180. zk.) argitaratu baitzen. Hortaz, honen bidez zuzenketa hauek egiten dira:

30. orrialdean, II. kapituluaren izenburuan, hau dioen lekuan: «Enplegu mugagabea, enplegu autonomoa eta nekazaritzako gizarte-babesa sustatzeari buruzko neurriak.»; hau esan behar du: «Enplegu mugagabea eta enplegu autonomoa sustatzeari buruzko neurriak».

43. orrialdean, azken xedapenetatik bosgarrenean, 26. artikuluko aldatuaren 2. zenbakiaren azken-aurreko paragrafoan, honako hau dioen lekuan: «1. zenbakian adierazitako pertsonen ezkontidea...»; hau esan behar du: «a) 1. zenbakian adierazitako pertsonen ezkontidea...».

43. orrialdean, azken xedapenetatik bosgarrenean, 26. artikuluko aldatuaren 2. zenbakiaren azken paragrafoan, hau dioen lekuan: «1. zenbakian adierazitako pertsonen ondorengo ahaideak...»; hau esan behar du: «b) 1. zenbakian adierazitako pertsonen ondorengo ahaideak...».

63. orrialdean, azken xedapenetatik hemeretzigarrenaren 3. zenbakiaren lehenengo lerroan, hau dioen lekuan: «3. 8. eta 10. artikulua eta bigarren eta hirugarren xedapen iragankorrak...»; hau esan behar du: «3. 8. artikulua eta bigarren xedapen iragankorra...».